



# Aranoren dizdira, Nafarroako lurretik itsasoari begira

**Ura, urteko protagonista** - Aranoarrak munduan  
**Arano iruditan** - Aranoko idazle txikiak - **Eta gehiago...**

**zenbaki  
honetan**

Gurekin harremanetan jartzeko:  
[laga@iparmank.org](mailto:laga@iparmank.org)

Diseinu eta maketazioa:  
[astidiseinua.com](http://astidiseinua.com)

Testuak: **Ainhoa Ansa, Arantxa Ansa, Juan Gimenez, Manuel Huici, Lourdes Legarreta, Xabier Legarreta, Maitane Legarreta, Maitane Sarobe, Jose Inazio Salaberria**

Azaleko eta kontrazaleko argazkiak: **Jabier Legarreta**

Argazkiak: **Jabier Legarreta, Ainhoa Ansa, Begoña Ansa, Goizuetako eskola, Gorozkenea, Juan Gimenez, Lourdes Legarreta, Maitane Legarreta, Maitane Sarobe, Oskar Gascon**

**Aurkezpena**

3

**Mendi ibilaldia**

4-5

**Historiaurrea hegiz hegi****Aranoko umeen**

6-9

**begietan eta hitzetan****Ura, urteko  
protagonista**

10-12

**2015 egutegia**

13-16

**Aranoko idazle  
txikiak**

17-19

**Arano, iruditan**

20-21

**Aranoarrak  
munduan... Katalunian**

22-24

**Errezetak**

25

**Denbora-pasak**

26-27

**Bertsoa**

28





**M**iaxiriaren hirugarren zenbakia duzue eskuetan. Aurretik beste bi izan dira, beraz, eta aurtengo honek ere beste horien bidetik jo du: Arano eta aranoarrak protagonista gure aldizkarian. Herri txikia da Arano, eta norbaitek pentsa lezake izanen ote duen horrelakoek zer kontatua eta aldizkari bat osatzeko behar adina istorio. Bistan da baietz, eta aranoarrak badu horren berri. Herriaren historia hamaika pasadizoz eta kontakizunez osatuta dago, aranoarrei gertatu zaizkienak, eta horietako batzuk hona ekarri nahi izan ditugu.

Miaxiriaren hirugarrena atal ezberdinetan banatuta dago, eta denetik dugu bertan: argazkiak, alde batetik, irudi hutsez ere herria nolatsukoa den erakutsi baitaiteke. Jabier Legarretak utzi dizkigun argazki eder askoak ditugu "Arano iruditan" atalean, eta gainerako ataletan ere bestelakoak sartu ditugu, testuak laguntzeko.

Eta irudiez gain, testua eta hitzak ditugu, Aranoren eta aranoarren berri ematen digutenak. Herritik kanpora joan zitzaizkigun herritar batzuen berri, esaterako, edo duela 50 urte inguru euskaraz idazten zuten aranoar gaztetxoena, mendi ibilaldi

bat gure lurretan barrena, gaurko umeen marrazkiak eta bertsoak, urari buruzko erreportajea, denbora-pasak, bertsoak eta baita errezetak ere.


Horretaz guztiaz gain, aldizkariaren erdiko orrialdeetan duzuen egutegia aipatu beharko genuke, Juan Gimenezek egina. Erdiko orrialdeak direnez, aise ken ditzakezue aldizkaritik eta hormako egutegi moduan erabili, etxeko txokoren batean itsatsita edo zintzilikatuta.

Hortxe duzue, bada, Aranon elkarlanean egindako lanaren emaitza, zuen gustukoa izanen delakoan. On egin!

# Historiaurrea hegiz hegi

Historiaurrearekin bat egiteko aukera zoragarria eskaintzen du ibilbide honek. Pagadiz beteriko bidekak ezagutzeaz gain, monumento megalitiko zoragarriak ikusteko aukera emango digu. Arano eta Goizuetako lurrak ukitzen ditu eta, beraz, bi herrietako inguru naturala ezagutuko dugu.

- Hasiera ordua: 2014-07-06 08.35
- Bukaera ordua: 2014-07-06 12:38
- Batez besteko abiad.: 2,19 km/h
- Gehieneko abiad.: 9,17 km/h
- Abiad. Mugim.: 3,92 km/h
- Denbora mugimenduan: 2h 16 min
- Irabazitako altuera: 492 m
- Galdutako altuera: - 476 m
- Gehieneko altuera: 708 m
- Gutxieneko altuera: 436 m



## 1. ARANO-BURNIN (Arano)

Herriko aparkalekuan kotxea utzi eta ikuspegi ederrak izango ditugu ibilbidea hasi aurretik.

Aparkalekutik irteterakoan, ibilbide osoan zehar bideratuko gaituzten seinaleei jarraituz mendi aldera hartuko dugu asfaltatutako bideari segika. Berehala, asfaltoa bukatu eta pista arrunt bihurtuko zaigu "Oraunera" garamatzen bidea eta han ezkerreara egingo dugu pista nagusia utziaz. Segituan, eskuinera egingo dugu eta pago gazte eta zahar arteko gurdibide eder bati segiko diogu "Burningo bordara" iritsi arte (ogitartekoa janez geldialditxoa egiteko leku ezin hobea).



## 2. URGARATAKO LEPOA (Goizueta)

Borda ezkerretara utziaz bidean aurrera egingo dugu eta Aranok Goizuetarekin muga egiten duen lekura iritsiko gara. Pasabide kanadiar edo rejilla pasa eta eskuinera hartuko dugu. Berehala "Urgaratako lepora" iritsiko gara (Goizuetako lurretan gaude) bertan lauzpabost mairu-baratz edo harrespil ezin ederragoak ikusi ahal izango ditugu.




### 3. AÑOENKO TRIKUHARRIA (Goizueta)

Xenda jarraituko dugu norabiderik aldatu gabe. Berehala gara "Añoeneko" trikuharri eta bordetan. Batzuk ala besteak eroriak egon arren, benetan merezi duen lekua ikusiko dugu. Han, "Errekalkora" (Errekaleku) doan pista hartuko dugu eskuinera eginda eta 1,5 km inguru egingo ditugu ezkerretara "Mandoegiko" tontorra eta zokoko baso dotoreei begira.

### 4. ERREKALKO (Arano-Goizueta)

"Errekalkoko zabalera" (1 h 15 min) iristerakoan, mairubaratz mordo aurkituko dugu eta, behin haiei bistadizo bat emandakoan, bi herrien mugatik jarraituko dugu, Arano aldeko norantzan beti ere. Hortik aurrera ere ez zaigu mairu-baratzik edo antzinako arbasoen aztarnarik faltako, hasi "Lekendiko gaineko" eta "Txarai burura" bitartean (denak seinalizatuak eta bista ezin hobeak dituzten parajeetan kokatuak).



### 5. ORAUNE- JUAN DONOSTI ERMITA (Arano)

Itxitura pare batekin topo egingo dugu, aziendetatik pago landare gazteak salbatzeko eginak, baina pasoak eginda daudenez, gaintik pasa eta etorkizuneko pagadiak zeharkatuko ditugu mairu-baratzen artean bidaiatuz. Hegiz hegi eta goitik beherantz "Oraunera" jaitsiko gara, lehenxego pasa garen bide gurutzera. Han berriz ere pistari kasorik egin gabe mendian zehar egingo dugu Aranoren gain-gainean gelditzen den "Juan Donosti" gaineko behatokira iritsi arte.



### 6. ARANORA ITZULIA (Arano)

Handik itsaso, mendi, nahiz Añarbeko urtegiaren bista bukaezinak izango ditugu. Daramagun norabideari jarraituko diogu. "Juan Donosti" ermita. Pago artean gordetako lau paretak besterik ez gelditu arren leku zoragarria dugu hau eta herria hankapean dugula ia gainbehera egingo dugu "Goiko sotoko" bordara. Han eskuinera hartu eta hormigoizko pistari segiko diogu nonahitik joanda ere abiatutako lekura iritsiko garelarik.

# Arano, umeen begietan eta hitzetan

**G**oizuetara joaten dira eskolara gure herriko umeak eta aurtan, MiXiria aitzakia hartuta, Aranori buruz esan nahi zutena adierazteko ariketan jarri dituzte beren irakasleek. Zortziko txikian egindako kopletatik hasita, txiste, maketa, ipuintxo, marrazki... denetarik jaso dugu eta oso pozik gaude!

Denak ezin kabitu, ordea, MiXiria honetan! Hemen ikusten dituzuen lanak Aranoko umeenak badira ere, egin duten lana eskertu eta aipatu gabe ez genituzke utzi nahi Goizuetako Andres Narbarte "Xalto"-ko ikasleak!

Ondorio batzuk atera ditugu haien lanetatik! Hementxe datu interesgarri batzuk:

Plaza txikia omen dugu Aranon, jende gutxi eta txakur asko! Frontoiari aterpea falta zaiola ere asko daude konturatuak. Hala ere, herri polita omen da Arano, naturari lotua eta fruitu eta animalia ugari dituena.

Onttoak, mendia eta herriko festak dira gehien aipatu direnak eta herriko festetan errepikatzeke gogoz dirudite gehienek! Herrikoek ere ez dituzte bazterrean uzteko!

## Jokin Olló, Azahara Sarasti eta Unai Muñoz

Herriko Jokin Olló, Azahara Sarasti eta Unai Muñoz elkarrizketatu zituzten beren 5. eta 6. mailako gelakideek. Haiei Aranon bizitzeari buruzko galderak egin zizkieten eta badirudi hiruek oso gustuko dutela hemen bizitzea! Animalia asko daudela, mendi inguruan bizitzea gustatzen zaiela, frontoian gauza asko egiten dituztela (nahiz eta batzuetan jende gehiegi dagoelako jolastu ezinik ere aurkitzen diren...), euria egiten badu laguneren etxeko tinbrea jotzarekin moldatzen direla eta abar zioten. Eguraldi ona oso gutxitan egiten omen du, oso goian dagoelako. Horregatik esango zuen beste batek, frontoi berri bat ongi legokeela, estalkiduna agian eta jende gehiago biziko balitz lagun gehiago izango zirela ere bai.

Azkenik, DBHkoen lanak ere aipatu nahi genituzke! Ipuin eta idatzizko lanak egin zituztenez, datu guztiak jartzea ezinezkoa litzateke. Baina lan polita egin zuten, bakoitzak bere modura, Aranori buruz zekitena eta ez zekitena era ezberdinetan jorratzen. Datuetan oinarritu ziren

## BERTSOA MIAXIRIA

DOINUA: ARGIN ANDALUZA

Hirugarren rebixta  
MiXiriana  
Aranoko umeak  
egin dute lana  
eskolan landu dute  
denak bertso bana  
bertan ateratzeko  
egin zuten plana

Intza Mujika

batzuk, guri ere interesgarri iruditu zaizkigun batzuk ere agertuz! Beharbada, Benta Berri, Latxe eta Arranbide auzoak bidean ahaztu ditugula esango digute... Interneteko iturriez ez dago beti-beti fidatzerik, ezta?

Batzuk fikzioa ere erabili zuten! Mendi buelta bat egitera atera eta bidean galdu izanaren ondorioz, "herri polit bat ikusi" eta bertan bizitzera gelditu zenik topatu dugu, herri hau, jakina, Arano dugu. Izan dugu, ipuin horietako batean eta mendian galdu izanaren ondorioz hau ere (behe-lainoak ez digu fama onik ematen noski...), "etxe oso zaharrak baina farolik ez zuen herri bat" topatu eta Arano izena jarri ziola aitortu zigunik ere... Arano herria hizketan ere sentitu dugu, 17 urteko herria, txikia, baina jende asko maitatua. Elurte baten ondorioz etxe guztiak suntsituak izan zituen Aranon istorio honen arabera, eta Goizuetak lagundu zion etxeak eraiki eta berriro berpizten.

Aranok zentzu guztiak jartzen omen ditu martxan: garbi usaia sumatzen omen da, jolas eta hizketa soinua entzun, bistaz itsasoa ikusten da besteak beste, eta sentitu... gauza asko sentitu daiteke bertan!

Marrazki, bertso, ipuin, komiki, elkarrizketa, maketa... eder hauek jaso eta ikustea benetako plazera izan da! Horregatik, esker-tza moduan ikusgai jarriko ditugu, denek, guk gozatu dugun adina goza dezaten zuen lanekin! Mila esker Aranoko eta Goizuetako umei bihotzez!!! • Ainhoa Ansa

## BERTSOA MIAXIRIA

DOINUA: ZERBAIT ESAN NAHI NUKE...

Aurtan aterako da  
liburu berria  
hirugarren ale  
zirrargarria  
Goizutako eskolak  
du parte jarria  
bertan egin genuen  
proiektu erdia  
hau da hausardia  
Arano herria  
umeen irria  
da zoragarria  
bi urtetikan behin da  
MiXiria (BIS)

Ander Mujika

ARANO  
Urtetara iristeko  
gogoa badugu  
Zerrenda jaso da  
bertan jango dugu  
lagunekin jaso nahi  
Zerrenda ikustera  
Zerria arropatu  
pania lastantzen

Intza Mujika

ARANO  
Plaza oso txikia da.  
erria oso polita da.  
txakur oso daude.  
erria oso txikia da.  
Jende gutxi dago.

Haizea Muñoz

ARANO  
 Aranoko herrian  
 Lasai asko dago  
 Lagunekin jolastuz  
 beti politago  
 Ongi begira zazu  
 Donosti ikusten da  
 Aizu lagun zatozte  
 hau ezagutzera

Naroca

Naroca Egurza

Hemen gaude abolan  
 bertsoa prestatzen  
 aspertu gabe gaude.  
 Zueri kontatzen.

Aranoko rebistan.  
 ateko gela  
 kirurari berretsin.  
 harrituko zea.

Kirugarren bertsoa  
 daukagu ementze  
 langarrenekin hasi  
 beharke emantze.

zaitustegai moite.  
 ayo te ikusiate.

4  
 P  
 P  
 O  
 K  
 P  
 P  
 O  
 K  
 P  
 P  
 O  
 K

Abolako umeen koplak

ARANO

Ni ari naiz jolasten  
 Aranon lagunekin.  
 Gordetxi ari gara  
 denek elkarrekin.

Gordetxi ari gineba  
 ataldu 20 euro.  
 Nonsegun behar  
 jan dagoen gero.

Enerite

Eneritz Salaberria

ARANO

Aranon ez polita da.  
 Arano jolatu leku dagoen  
 lekuak ezin dira izan.  
 Bida oso daude.  
 Enean arde denak dudu.  
 Aranon gurea asko dago.  
 Zualte arde daude.  
 Gortetxi arde daude.

Leyre Egurza



Martixikiko Luka, Martina eta Coco

ARANO


Aranoko urritik 7  
 donosti ikusten da 6  
 oroko leku leku eta 7  
 gela gela 6

ondoko jolatu ostera 7  
 maza molara metatu 6  
 galat irihit dora eta 7  
 gela gela 6

Oihan Legarreta



Irene Galparsoro








Naia Elizazu




Maddi Moseguez



Araitz Legarreta



Haizea Muñoz



Laxaro Zugarramurdi



Leyre Egorza

# Ura, urteko protagonista

**U**ra izango dut Miaxiria honetan hizpide. Urtea joan da konturatzerako eta bukaera honetatik atzera begiratuta, "ura" eta uraren aitzakia ahotan askotan izan dugula konturatu naiz. Ura bera bere zentzu zabalanean hartuta batzuetan. Beste batzuetan, aldiz, gure errekarari, Uru-meari omen eginez.

"Ura oso ona da guretzat" esanez irabazi zuen aurten, Nafarroako 1.400 umeren lanen artean, Aranoko Naroa Egurzak egindako marrazkiak, Uraren Egunaren harira Gurbindo Etxeak antolatutako lehiaketako lehenengo saria! Marrazki dotorea eta kolorez eta ur tantaz betetakoa gure artista txikiarena!

Uraren kalitatearekin arduratuta, udan tailer berezi bat antolatu zuten Aranon, ikerketa ezberdinen ondorioak aztertuz dabilen jendea elkartuz. Tailer hauetan urak bere mugimendua behar duela defendatzen zuten, bidean hartzen zituen mineral guztien propietateak ez galtzeko eta oxigenazioa mantentzeko. Osasunean eta gure lurrean ere nabaritzen zela uraren kalitatearen eragina.

'Urumea arnastu' ere hortxe sortu da, gure bazterren erakusleihu izateko. Uru-meak bustitzen gaitu Arano eta inguruko herriak, eta bere webgunean Aranoko ohitura, argazki, ibilbide, ikusteko tokiak, jatekoak eta lo egitekoak... jasota daude. Bestelako eguneroko berriak jasotzeko eta zabaltzeko, berriz, Urumeako kronika sortu da denon etxeetara bailarako notiziak ekarriz eta gure herrikoak ere modu gertukoan emanez.

Artikulu hau idazterakoan, hala ere, aurten etxe askotan izan dugun egutegia osatzeko gogoia izan dut. Leitzaran eta Urumea erreketako testigantzak kontatu nahi zituen egutegi honek, "Emakumeak busti egiten dira" izenburupean. Baina kontu eta ohitura asko ezin izan genituen bertan sartu toki edota denbora falta izan zirela eta. Material asko bildu zen eta elkarritzeta batzuk egin ere bai, eta Aranoko putzaderek ilbeltzeko orria bete zuten



Mailako putzadera.

azkenean. Materiala hor gelditu ez dadin noa idaztera ondoko lerroak. Falta direnak hurrengorako inork nahi badu!

Putzadera bat agertzen da ilbeltzeko orrian, Tereseneko bordakoa hain zuzen ere (orain txukunduta jarri dute argazkian ikus daitekeenez) eta noizbait putzadera bat egon zeneko arrastoak ageri ziren beste argazkian. Baina putzadera hauek ez ziren bakarrak duela urte batzuetako Aranon! Suron etxe bakoitzean ba omen zen horrelako egitura bat eta herrigunetik kanpora zeuden etxeetan ere bai, esaterako Mailan (argazkiak: Mailako putzadera, gaur egun dagoen bezala eta Tereseneko Bordakoa bestea. Zutik aurki daitezkeen bakarretakoak).

## Putzaderak

Putzaderak zertarako ziren ongi azaldu nahiko nuke orain. Putzaderek teilatuko ura biltzen zuten beren barrenean teilatuko bajante baten bidez. Ur geldia edo ur hila izaki, edateko eta sukaldean aritzeko ez zuen balioko baina gainerakoan etxeko lanetarako, garbiketa egiteko, zein norberaren garbitasunerako erabiltzen zuten. Putzadera bera garbitzea tokatzen zenean, berriz, hustu eta barrenean sartu behar izaten omen zuten goian izan ohi zuen atetxo batetik. Barrendik zepiluarekin garbitu eta berriz ere betetzen utziko zuten etxeko erosotasun gutxieneko batez gozatzeko. Ura honelako edo beste edozein eratako putzutatik ateratzeko ere Leontxon Bordan jasota duten ur-bonba ikustekoa da.



Tereseneko bordako putzadera.



Leontxon Bordako bonba eta arropa garbitzeko harria.

Goiko burdinari eraginez ura ateratzea lortuko zen eta gero kanilla irekitzean, ura eskura, aizue!

Orduan ez zuten ura etxean izaten, eta, noski, ez zuten orain dugun "lujo" hau ezagutzen. Tereseneko bordako putzaderak beste berezitasun bat ere mantentzen du: arropa garbitzeko harria du ondoan bere askarekin. Etxe askotan zeuden harri edota askak; herrigunetik kanpora dauden ia guztietan esango nuke. Ezkerren bordakoa, Leontxon bordakoa, Bordaxarkoa, Larraturikoa, Beltsoko Bordakoa, Xauxarkoa... datozkit gogora, etxondoan mantentzen



Txautxikiko putzadera edo elur zuloa.

dituztelako. Ura etxeraino ekartzearekin egingo ziren, hain urrutira joan beharrik gabe etxean moldatzeko.

Ura etxeraino ekarri aurretik, ordea, bakoitzak ahal zuen moduan moldatu behar izaten zuten eta labaderoek beren funtzioa betetzen zuten hor. Labaderoak bat baino gehiago ziren herrian eta putzuak ere zer esanik ez! Iturriberri eta Paulon Putzua zituzten Suron, Goiko Surokoentzat lehenengoa eta Beheko Surokoentzat bigarrena. Herrikoentzat Larriturriko labaderoa izaten zen, sei harrirekin eta iturria erdian zuela eraikia. Iturtxikikoa lau bat harrirekin egingo, Beheko Herrikoek erabiliko zuten gehienbat... Hortik aurrera, pentsa daiteke Latxe eta Esilets erreketatik hasita, Urumea errekan zehar ere baserritarrek beren beharren arabera antolatuta izango zituztela hainbat eta hainbat putzu beren harriekin.

### Goada edo lixiba egitea

Arropa garbitzeari goada edo lixiba egitea deitzen zioten. Orduko emakumeen lana izaten zen hau eta garbiketarako beharrezko materialak ziren, beste batzuen artean, kuela, ohola eta zepilo lakar bat zikinkeria marruskatzeko. "Kuela haundi bat izaten zen, zinkezkoa, eder ederra, behean kanillarekin. Han sartzen ziren arropak, zapi zuri bat jartzen zen gainean eta suko hautsa galbahetik pasata garbi-garbia, fin-fina, bota behar zen bertara. Gero ur beroa gaintetik bota eta gau bat edo egun oso bat beratzen eduki eta gero labaderora



Larriturriko labaderoa.

### Jaboa egiteko errezeta

Suko hautsa famatzen zuten gure amonek kolore zuria arrunt ongi garbitzen omen zuelako. Hemen, ordea, jaboia egiteko errezeta bat jaso dugu:

**Osagaiak:** 3 l ur, 3 kg manteka edo olio zikin, 1 kg sosa kaustiko.

Ura ontzi batean jarri, sosa kaustikoa bota bertara eta irakin arte nahasi. Azkenik seboa edo bestelako olio edo gantza bota behar zaio, eraginez, nahasketa loditu arte. Eragiteko plastiko gogor bat edo egurrezko makila bat erabiliko da. Eta azkenik molde batera bota eta poliki-poliki hozten utzi behar da. Hilabete beharko du sosa kaustikoak efektu guztia egiteko eta orduan erabili ahalko da.

joan behar zen". Usain goxo-goxoa izaten zuela gogoratzen dute elkarrizketatu ditugun herriko emakumeek.

Buru gainean burutia jarri eta haren gainean arropaz betetako barrinua hartuta labadero edo erreka txoko hauetara joaten ziren gure ama, amona eta birramonak arropa zikinez kargatuak hara eta garbitu berriekin etxe aldera bueltan. Gero zabaldua jarriko zituzten belar gainean edo etxe inguruan horretarako prestatutako hari edo soketan zintzilikatuta. Belar gainean zuria jartzen omen zuten ihintzak zuritu egiten omen zuelako.

Baina ez ditugu hemen emakumeak bakarrik aipatu behar, etxe bakoitzeko errealitatearen arabera beharizan asko alda baitaitezke! Epiñabarko Miel zenaz gogoratu dira asko kontu hauek berritzerakoan. Alarguna izanik, berak egiten omen zuten goada. Kantari pasatzen omen zuten goiz osoa, arropa garbitzen, eta maindireak belar gainean zabaltzen omen zituen gero. Gustura egoten omen ziren erreka beste aldekoak haren kantuak aditzen!

Lan egun gogor baten ondoren, du txarik etxean ez izatea pentsa dezakezue gaur egun zer izango zen? Batzuk gogoan izango duzue barrinu handi batean sartuta etxeko guztiak banaka-banaka garbitzen zineteneko. Aurrenekoek ur garbia zutela eta azkenekoek pentsa daiteke nolako... Barrez kontatzen dira orain kontu horiek baina gaur gutako norbait egoera horretan nola moldatuko litzatekeen ikustekoa izango zen!



Ezkerren bordako kuela, zepilua eta ohola askan.



Elizako aldarea.

Beste kontu bat da etxean norbait eri egonik edo haur jaio berri baten etorreran medikuaren premia izanda, hau etxera ekarri eta esku trapu eta ur garbia harentzat prestatu behar izatea. Kasu hauetarako fina izango zen Leontxon bordan oraindik ere gela bateko txokoa betetzen duen altzari bikain hau.

Lan asko egiten zuten gure aitona amonek garai hartan. Eta ura hauetako asko egiteko premia izanda zen. Zerri hiltzea edo bestelako ehiza piezen hesteak garbitu behar baziren, orduko hainbat egitekotarako artilea garbitu behar zenean, abereek edan zezaten erreka edo iturri on batera eramane behar zirenean... Beheko zentralak ere urte askoan sortu zuen herrirako argia eta beste horrenbeste egin zuen Beheko errota ere herriaren mesedetan. Gure etxeetako astoak artoz kargatuta beheko erroterara ere zenbat buelta? Zer izango ziren gure bi errota urak mugitu izan ez balitu? Eta zer egingo zuten gerra zibilean eta gerra ondore gogor hartan Aranoko errota herrian bertatik baina baita Gipuzkoatik ere irin bila etortzen ziren familia guzti haiek gure errota martxan izan ez balira? Esan dezagun Gipuzkoan errota itxita egon zirela gerra ondoko urteak berez zirenak baino gogorragoak eginez, eta Aranoko errota bizilagun haientzat ere lan egin zuela urte haietan, gordeka, hainbat familiari gose garaia zerbait arintzen lagunduz. Errotarriak etxe kantoi eta zokoetan ikusten dira tarteka, baina Aranon, herrian ohorezko tokirik bada, elizako aldarean dagoen errotarriak izango du toki hori bere egina.

### **Ipuinak eta bestelako denbora pasak**

Ura hipside dugula ahaztu gabe, hain zuzen ere, Beheko erroten inguruan badago putzu misterioz bat. Horrenbeste lan



Garbitasunerako ontziak Leontxo bordan.

egiten zuten etxeetan denbora ere nolabait pasatu behar izango zuten eta Aranoko kontakizunak ahora ekartzean, ez da hau Lamiosin edo Lamusin putzuaz hitz egiten dugun aurreneko aldia. Urre koloreko errainua izaten zuen putzu sakona eta igeri ibiltzeko neketsua. Lamiek bertan orraztuko zuten beren ilea urrezko orraziekin, eta bizilagunek, batzuk behinik behin, esnea eramango zieten haiek pozik edukitzeko. Emakumeek umeei kontaktatzen zieten kontakizun hau, beheko errekan egin beharreko lanetara zihoazela umeak etxe ingurutik ez urrutiegi joateko akaso? Edo lamia haiek benetakoak ote ziren?

Putzu honetan lamiak kantari eta jostak ibiliko baziren ere, orduko emakumeek eta gizonek ez dakit putzuetan, eskuarantz egitetik haratago, denbora pasa ibiltzeko denbora handirik hartuko ote zuten! Herriko zaharrenei galdetu behar... Urumea erreka ondoan duten etxeak gutxi dira Aranon (Arranbidekoak eta Aboño izatekotan) eta Latxe eta Esilets errekek ere ez dira egunero bisitatzen diren lekuak. Bainu

toki polita dugu Mendarazkoa baina bertan zegoen presa bota zutenetik hara jaistea lan zaila bihurtu da, erreka bazterreko amildegiak direla eta batetik eta korronte bizi xamarra izateagatik bestetik. Bidea ere ez da autoentzate egokia eta horrek bertara joatea are gehiago zailtzen du.

Aurten Cranaren laguntza bitarteko Mendaratzan auzolana antolatuta zuten Udalak eta jende asko hurbildu zen bertara. Nafarroako Ingurumen Baliabideen Zentroa da Crana eta auzolana bultzatzen du kontzientziario lana egitearekin batera. Mendarazko auzolanaren egunean iritzi asko entzun ziren, bidea konpontzearen aldekoak batzuenak, eta bere horretan hobeki dagoela besteak. Baina azkenean gauza batean gehientsuenok ados geundela esan daiteke. Auzolanaren bitartez herriarentzat hobekuntzak lortu daitezkeela argi gelditu zen, ur tanta txikiak elkartzuz uhinak behar diren lekura bideratzen baitira.

Ura zein balore preziatua den hemen ez dugu askotan pentsatzen. Soberan daukagula uste dugu eta ez dugula, ur eskasia dela eta, beste zenbait tokitan izan dezaketen arazorik sufritzen. Honekin lotuta, esango dugu aurten, Xauxarko Bordako presa egin zenetik (1985 inguruan), aurreneko aldiz pasatu garaela Ontzorrozko iturriarekin bakarrik. Ongi baxu egonagatik, aguantatu dugula Xauxarko bordako presatik hartu beharrik izan gabe. Hau uda hezea izan delako gertatu da, baina ez da ohikoa. Ura zuhurtziaz erabili behar dugula ikasi behar dugu denok.

Bitartean, gaurko eta etorkizuneko biztanleak ingurua eta gure baliabideak zaintzeko heziketan ari gara eta lantxo honek balioko ote du gure bizitzarako horren garrantzitsua den altxor hau, ura, errespetuz eta maitasunez zaintzen ikasteko. • **Ainhoa Ansa**

# 2015



## urria/urrila



artekahena	astearta	asteazkena	ostegua	ostirala	larunbata	igandea
			1	2	3	4 ☾
5	6	7	8	9	10	11
12	13 ☀	14	15	16	17	18
19	20 🌑	21	22	23	24	25
26	27 ☀	28	29	30	31	

## azaroa

artekahena	astearta	asteazkena	ostegua	ostirala	larunbata	igandea
						1
2	3 ☾	4	5	6	7	8
9	10	11 ☀	12	13	14	15
16	17	18	19 🌑	20	21	22
23	24	25 ☀	26	27	28	29
30						



## abendua

artekahena	astearta	asteazkena	ostegua	ostirala	larunbata	igandea
			1	2	3 ☾	4
	5	6	7	8	9	10
	11 ☀	12	13	14	15	16
	17	18 🌑	19	20	21	22
	23	24	25 ☀	26	27	28
	29	30	31			



# ARANO



## urtarrila/ilbeltza

astelehena	asteartea	asteazkena	ostegua	ostirala	larunbata	igandea
			1	2	3	4
5 ●	6	7	8	9	10	11
12	13 ☾	14	15	16	17	18
19	20 ●	21	22	23	24	25
26	27 🌑	28	29	30	31	

## otsaila/katuila

astelehena	asteartea	asteazkena	ostegua	ostirala	larunbata	igandea
						1
2	3	4 ●	5	6	7	8
9	10	11	12 ☾	13	14	15
16	17	18	19 ●	20	21	22
23	24	25 🌑	26	27	28	



## martxoa

astelehena	asteartea	asteazkena	ostegua	ostirala	larunbata	igandea
						1
2	3	4	5 ●	6	7	8
9	10	11	12	13 ☾	14	15
16	17	18	19	20 ●	21	22
23	24	25	26	27 🌑	28	29
30	31					

# 2015



## apirila/jorraila



artekhen	artearta	artezkena	artepuna	artirala	larunbata	igandea
		1	2	3	4 ●	5
6	7	8	9	10	11	12 ●
13	14	15	16	17	18 ●	19
20	21	22	23	24	25	26 ●
27	28	29	30			

## maiatza/loraila



artekhen	artearta	artezkena	artepuna	artirala	larunbata	igandea
				1	2	3
4 ●	5	6	7	8	9	10
11 ●	12	13	14	15	16	17
18 ●	19	20	21	22	23	24
25 ●	26	27	28	29	30	31



## ekaina/garagarrila

artekhen	artearta	artezkena	artepuna	artirala	larunbata	igandea
1	2 ●	3	4	5	6	7
8	9 ●	10	11	12	13	14
15	16 ●	17	18	19	20	21
22	23	24 ●	25	26	27	28
29	30					



# ARANO

## uztaila / uzta



arteklehena	arteartea	artezabena	artepasa	artirala	larabata	igandea
		1	2 ●	3	4	5
6	7	8 ●	9	10	11	12
13	14	15	16 ●	17	18	19
20	21	22	23	24 ●	25	26
27	28	29	30	31 ●		

## abuztua / agorrila

arteklehena	arteartea	artezabena	artepasa	artirala	larabata	igandea
					1	2
3	4	5	6	7 ●	8	9
10	11	12	13	14 ●	15	16
17	18	19	20	21	22 ●	23
24	25	26	27	28	29 ●	30
31						



## iraila / buruila

arteklehena	arteartea	artezabena	artepasa	artirala	larabata	igandea
		1	2	3	4	5 ●
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21 ●	22	23	24	25	26
27	28 ●	29	30			



# Aranoko idazle txikiak

**G**aur argitara eramango ditugun idazlanak ume aranoar batzuen bizipenak dira. Aspaldiko kontuak dira, eta haur horietako batzuk aitona-amona bihurtu dira eta besteak bizitzan aurrera doaz, 1959-1964 bitarteko urteetan argitaratutako idazkitxoak baitira. Haien kontakizun koxkorren bidez orduko euskararen giroa eta gure herriaren bizimodu lasaia ezagutuko ditugu. Orduan ez zen lan krisirik edo antzualdirik, baina gure hizkuntzak Nafarroan zehar eta beste sei Euskalerrietan aro ilunak bizi zituen.

Gerra zibila osteko hamarkadak gose urteak izan ziren arlo guztietan eta euskarak ere ederki sufritu zuen bere larruan. Gaixo eta goibel zegoen gure hizketa, Nafarroako gizatalde argitsu honi esker bere galzoritik salbatu zuten. Denak aipatu beharrean bakar batzuk esanen ditut: Aita Murieta kaputxinoa, Karle de Garmendia margolaria, Xole Erbiti andereñoa, Amadeo Marco diputatu nagusia, Jose Javier Urmeneta Armadako Kapitaina... eta abar luze bat. Euskaltzale sutsu horiek bultzazo ederra eman zioten gure elari diktadura denbora latzetan. Aitzin solasaldi koxkor honekin bukatzeko merezi du irakurtzea Nafarroako Foru Aldundiko manifestu deigarria: "Nafarroako Diputazioa naigabe samiharekin ikusten ari da izkuntze guzietan ederren eta arrigarrien den Euzkera, jakintsu aundiak diotenez, Nafarroako euskal erriak beren euskal izkuntza beren etxetatik kanpora botatzen ari dirala. Galtze negargarri au gertatu ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei, jarraitzeko euskeraz itzegiten, beren umetxoei erakusten eta egiñalak egin ditzaten euskera zabaltzen". Gaur egunean pozik entzungo genieke oraingo nafarziale berri ezjakin hauei adierazpen borobiltxo hau.

## Umeen Deia aldizkariaren sorrera

Umeekin kezka handia zutenez, euskararen iraupenerako, Aita Murietari otu zitzaion aldizkari bat sortzea, eta hori dela eta *Umeen Deia* aldizkariaren sorrera, abiapuntua Iruñan zuelarik, hain xuxen Hegoaldeko hiriburuan. Aita Felipe de Murieta (Francisco Torres Ibañez 1897-1966) nafar peto-petoa zen, Murietako (Lizarralde) seme pixkorra zen. Euskaltzain oso honek



*Umeen Deia* aldizkariaren azala (1959-1966).

*Umeen Deia* gorpuztu zuen "Euskeraren Aldeko Sailaren" (Departamento de Fomento del Vascuence) gerizpean, jakina, Principe de Viana eta Diputazioaren babes instituzionalaren babespean. Burutazio hark helburu garbia zuen, umeen artean euskara bultzatzea eta gure hizkuntzaren etorkizuna finkatzea edo bermatzea.

Aldizkari koxkor honek —lau orritxoko argitalpen xumea besterik ez zen, 25 x 17

zentimetrokoa, bai txikia tamaina!! (folio baten antzekoa)—, sei urteko ibilaldi motza izan zuen, arestian nioenez 1959tik 1966 arteraino. Murieta kaputxinoren heriotzarekin batean bukatu zen. Guztira 65 zenbaki argira atera zituzten eta umeei idatzitako orri solteak. Edukia ere txit ximplea zen: umeei lotutako guztiak, jolasak, kontuak, ipuinak, herrietako kontuak..., dena bideratzen zen herrietako eliz-gizonen bidez,



Nafarroako Diputazioak euskaraz zekiten umeei banatutako diploma.

apezek egiten zuten zubia haurtxoen eta inprimategiaren artean. Papertxo haiek egundoko arrakasta izan zuten gaztetxoaren eta txikien artean eta harrera on horrek beti izan zuen erakundeen begirune eta baimen erabatekoa.

Separata apal haiek estimazio handiago izan zuten herri txiki eta aldentutako gaztetxoaren artean; eta langileenak haur nafar eta gipuzkoarrak izan ziren, zazpi Euskalerrietako parte-hartzaileak izan zirela esatea ahanzi zait eta. Atzerritik ere bidali ziren lantxoak.

### Orduko Arano

Orduko Arano herria ethez eta tamainaz berdintsua izango genuen, baina nire uste apalean jendetsuagoa, sendi gehiago bizi ziren eta hiriburuetakoa joan-etorriak lan eske beranduagoko kontua izango ziren. Bertan jendetza nagusituko zen eta baserritik bizia edo bizimodua ateratzen zuena gehiengo izango genuen. Horrelako giroan 10 idazki topatu ditut liburu batean eta idazle pare bat oraindik Aranon bizi dira, Ezkerrenbordako Ana Mari eta Perutxoko Iñaxi; atzeneko andre honek arreta eman dit, aranoarren garaiko bizitzeko era ondo xehetzen digulako: "... ibiltzen gera elizan eta errian eta lanian... bazkak eiten, iratzian..."

Lan motak bistakoak dira —orain bezelaxe—, elizaren indarra ere nabarmena da, eta Goizuetako herriarekin harreman sakona agerian gelditzen da. Nieves Perurenak dotore esplikatzen digu bere euskal nortasuna, euskara

ulerterraz batean, gipuzkera hutsa dela diruri baina!! Gainontzeko mutiko batzuek idazki trebeak azaltzen dizkigute beren kontuekin, haien gorabeherak ongi baino hobeto islatuz. Espero dut *Umeen Deia* aldizkariaren paperetan idazle jator hauek beren burua ezagutzea eta era berean poza hartzea. Oroimen gisara doa idazlan hau.

Gaurko belaunaldi berriek dotore idazten dute euskaraz, horrez gain "Xalto" eskolan (Goizuetan) hiru hizkuntzatan trebatzen dira, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz, eta gutxi balitz hamazazpi aranoar txiki hango eskolako ikasle dira. Etorkizuna ziurtatuta ote dago? Umeek ikasi dezatela beren hizkuntza eta beren herria maitatzen, baina batez ere euskaraz beldurrik gabe idazten, irakurtzen, eta mintzatzen; gainerako mintzairak ahaztu gabe, horiek behar diren lekuetan erabiliz. "Ekin eta jarrai" umeok, Euskaltzaindiak dioen erara, eta horrelaxe gure Euskalerra denen ahotan hitzetik hortzera ibiliko da.

Amaitzeko, kontakizun honen harira aipa dezagun Goizuetan, 1962ko abuztuaren 19an, Euskeraren Eguna haundikiro ospatu zutela eta egitarau barruan goizeko 11,30etan Goizuetako eta Arano neskato eta muttikoei "Principe de Viana" delako erakundearen sariak banatzeko ekitaldia egin zela. Arratsaldean bertsolarien txanda egokitu zen eta bertan Nafarroako txapelketa jokatu zen. Principe de Viana Erakundearen lana txalogarria izan zen urrutiko garai horietan.

• **Jose Inazio Salaberria**

## Umeen Deia aldizkaritik jasotakoak, aranoarrek idatziak

— Pentsatu dut kontu bat bialtzia euskaldunak geran partetik. Emen diju nere kontua:

Egun batez baserritar batzuk joan omen ziran Donosti'ko "hotel" aundi batera jatera.

Sartu omen ziran senar-emazte batzuek eta an ondoan ari zan beste pareja bat jaten ollaskua eta baserritarrek izaki. Eta an omen zauden eskatzeko paperak eta an jartzen omen zun: "Repollo". Ta esan zuten:

— Ba au "pollo" baño are onagua izango da.

— Ta eskatu zuten, ta platerka bat aza atera zien.

Bueno: jan zituzten, ba, azak eta gizonak esaten zion baztarrekoan eskatzen dutena bear zuala. Eta aiek eskatu zuten "repetir". Eta baita ere auek.

Eta berriz azak jan zituzten. Eta besteak eskatu zuten edateko "kopak" Marie Brizard eta Pedro Domecq.

Auek esan zuten aien igualak ez dutela izan bear, eta eskatu zuten "José Martín eta Juan José". Eta denak purrez. Bañan aiek pagatu zuten ta juan ziran zine batera.

Bazkari ona egin zuela, ba, ta jende guzia ari zen txaloka, ta esaten zuten: "que se repita, que se repita!".

Eta aiek, batak besteari esaten dio:

— Eman ezta guretzat aza besterik. Guazen emendik.

Eta biek juan ziran.

Emen bukatzen da nere kontua. Ni naiz

**ANSA LEGARRETA'tar ANA MARI, 10 urte**

— Emen kontatzera nijua kontu bat, nere amonak neri esana:

Erri batian, egun batez, omen zijuaz-ten Rogatibetara San Migelgo ermitara jende asko, eta apaiza kantari Letaniak kantatuz. Eta apaizak ala dio:

— Santa Agata

Eta jendiak:

— Ora pro nobis!

Berriz apaizak:

— Santa Anastasia.

— Ora pro nobis!

— Omnes santa virgines et vidue

— Orate pro nobis!

Eta ala ari zirala, apaizari zer ari ziran aztu; eta ala omen dio:

— Santa "dana-dala"!

Eta jendiak:

— Ora pro nobis!

Eta emen bukatzen da nere kontua. Urrengo arte, agur. Ni naiz

#### ANSA LEGARRETA'tar ANA MARIA

— Iru mutil, soldado joan aurretik, bialdu omen zituzten erderaz ikastera. Batek ikasi omen zuen "Nosotros", besteak "por dinero", ta besteak "tiene usted razón".

Etxera eldu zirala, bidean ikusi omen zuten gizon bat illa, eta ondoan guardia-zibil bat. Onek galdetu omen zien:

— Quién ha matado a este hombre?

Batek omen dio:

— Nosotros

Guardiazibillak:

— ¿Porqué?

— Por dinero.

— ¡A la cárcel!

— Tiene usted razón.

— Ta orduan irurak karzelerera eram zituzten.

#### LEGARRETA'tar MIGUEL MARY

— Santiagoak oso ongi pasa gini-tuen: dantzan ibilli giñen. Gero nes-kamutiko txikik Dotriñara joaten gera ikastera eta "solfa" ere bai. Ibiltzen gera elizan eta errian eta lanian eta ze-lain eta iratzian eta artoan biltzen ere bai. Egiten ditugu bazkak eta mendira joaten gera aitakin egurra kargatzera. Bi aizpak joan giñan Goizueta'ra andre batekin.

#### ÑASITA ZABALA, 9 urte

— Kontu bat.

Neri osabak kontatu zidan kontu au.

Etxe batian bizi omen ziran gizo-na, andria eta bi ume. Talo bat omen zuten jateko, eta gizonak esan omen zion andreari:

— Simona, egin zan repartimendu komuna; neretzako erdia; umientzako laurden bana, ta iretzako nai dunena.

#### MARIA IZIAR LEONET, 10 urte

— Gure erria oso polita da. Ni naiz Arano'koa. Nik itzegiten det euskeraz; nere amak nai du nik euskeraz itzegi-tea. Ni bizi naiz baserrian, eta amendi-kan errira biaje aundia dago. Eta orain ay gera "solfa" ikasten. Lengo julioan egin giñun eskursio polit bat Aranza-zu'ra eta ibilli giñan oso ederki.

#### MARIA NIEVES PERURENA, 9 urte

— Denbora bateko esana. Bein ola joan omen zan perira, eta erosi omen zuan txerri bat; eta biek apostua joku-tu omen zuten, eta mutilla itxera allatu omen da, eta amari galdetu omen dio ia txerria allatu den etxera: ezetz. Eta muti-llak esan omen zion arek apostua in zula. Eta amak esan zion olakoa sokakin lotuta ekartzen dela. Perira berriz joan da, erosi zun kazula bat. Sokakin lotuta zekarrela, belarri utsakin allatu zan etxera, eta amak dio: Ez al dakik olakoa uraz beteta ekartzen dela?

Perira joan da, erosi omen du saku-a-zukria, eta urean sartuta zekarrela, azukria urtu eta saku utsakin aliatu zan etxera.

Aunditu zanean, amak esan omen zion plazara joateko, eta joan da gure mutilla neska bat Kalatarekin jo ta seko utzi du. Eta amak esan omen dio: Ik ez al dakik olakoan dantzan asten dela?

Urrena itxe batera joanda, amona illa zegola aballa dantzan asi zan. Amak esaten dio: Ez al dakik olakoan errezoan asten dela?

Eta zerria illa zeukaten etxe bate-ra joanda, belauniko errezoan asi zan. Etxerakoan amak esaten dio: Ik ez al da-kik olakutan, "urrengo urtean aundiago egiteko grazia in daizuela Jaungoikoak" esaten dela? Eta amona bat anka aundi-akin zegola, esaten dio: Urrengo ur-tea aundiagoa egiteko grazia in daizula Jaungoikoak.

Nere kontua emen bukatzen da.

#### OLANO eta ESKUDERO'tar JOSE LUIS, 10 urte

— Aspaldian ez det UMEEN DEIA'-ri berririk bialdu. Ez nago aztuta, baño denborarik ez det asko: gure ikasi bear auek ematen digute naiko lana. Gaur astearte danez emen nago. Aurreko umean deiari enion kontestatu, baño oraingo txandan bai.

Egun batean amonak soñeko bat eka-rrri zidan, eta sartu nuen urean; eta seka-tu zanean, jazten asten naiz, eta txiki-egi gelditzen zait. Esaten diot amonari, eta bai al dakizu zer erantzun zidan.

— A, orrek erremedio erreza dauka: orain sartu zeorre uran... ta kitto.

Onekin bukatzen da nere kontua. Beste bat arte Jaungoikoa, lagun.

#### OLANO'tar MARI KARMEN

— Ni arantarra naiz, eta illero ema-ten dizkigute ojatxo auek, eta oso kontu politak leitzen ditugu, eta nik ere... ez da oso polita, baño auxe bialtzia pen-tsatu det.

Gauza antiguak saltzen zituzten den-da batean zegoen katu bat saltzen, eta ondoan omen zukan esne piska bate-kin katxarro bat zarra, baño asko balio zuna. Ta gizon batek inguratu ta esan omen zion katua saltzeko ote zegoen. Eta saltzaileak esan omen zion baietz, irurogei duro balio zula. Eta erosleak oso kontentu pagatu omen zun katua, ta esan omen zun:

— Bueno, emendik oitua dago katua, eta katxarro au ere eramatera nua.

Eta saltzaileak, keñu bat egiñez bes-teari, esan omen zion:

— Ez, ez; eskerrak katxarro orreri bederatzigarren katua da saltzen du-tena.

Eta emen bukatzen da nere kontua. Urrengo arte.

#### ZABALA'tar MARIA IGNAZIA, 12 urte

— Iru gizon omen ziran. Batek gal-datzen omen dio:

— Nungua aiz i?

Ni Oreja'kua.

— A, bai; bazakit nun den; bi begi baño atzego.

Besteari galdetu omen zion:

— Nungua aiz i?

— Ni naiz narizekua.

— A, bai; bazakit nun den; bi begi baño betigo.

— Ta besteak ez zuan esan.

#### ZUBIRI'tar JUAN MIGUEL, 8 urte

# Arano, iruditan

Urrutiko parajeetako argazki ederrak ikusteko aukera izaten dugu askotan, eta haien edertasunarekin gozaten dugu. Ez dago hain urrutira joan beharrik, ordea, irudi eder askoak ikusteko. Aranon bertan baditugu horrelakoak, eta Jabier Legarretak egindako argazkiek erakusten digute hori. Jabierren begiradari eta Maixiriari esker gure herriak eta bertako naturak eskaintzen dizkigun irudiez goza dezakegu, inora joan beharrik izan gabe. On egin!



Latxeako erreka.



Errotako zubia.



Añarbe biluzik.



Gaztainak morkotsean.



Ilauna.



Bisitaria buruz beiti.



Beroaldi korapiloa.



Orain alde batera...



... eta gero bestera.



Baserri bat edo bi?

# Aranoarrak munduan... Katalunian

**E**z da jakiten inoiz pertsona baten bizitza luzeak zenbat pasarte bilduko dituen. Aurtengoan bi aranoar ekarri nahi izan ditugu gogora. Biak Suro auzoan jaio ziren, kasualitatez egun berarekin, urriaren 22an. Zaharrena, Gaztazko-Bordako Maria Juana, 1914. urtean. Aurten 100 urte bete ditu eta aranoarrak zaharrena izan daitekeela uste dugu. Gazteagoa, berriz, Martzeneko Bordako Jabier, 1943an. 71 urte bete ditu.

Aranotik kanpo daramate beren bizitzaren zatirik handiena, gaur egun, pil-pilean dagoen Katalunian. Biek esan digute zeinen ongi jaso dituen Kataluniar herriak bere altzoan.

## **GAZTAZKO-BORDAKO MARIA JUANA**

Gaztazko-Borda baserrian jaio zen Maria Juana Huici Leonet, 1914. urtean. 12 senideetan laugarrena izan zen alajaina. Aita Santiago Huici, eta ama Anastasia Leonet. Senideak, berriz, Rikardo, Tomaxa, Juan Antonio, Maria Juana, Segunda, Matias, Benita, Leonor, Angel, Bittorio, Joxe eta Felix.

Bere aita Mariak 14 urte zituela hil zen eta ama gelditu zen baserriaren kargu hainbesteko familiarekin. Urte hartan euriteek lurak eta artoak eraman omen zizkieten eta ezer gabe utzi omen zituzten. Behin, bere senideek txarranpina harrapatu omen zuten eta praktikantea baserritik omen zebilen. Mariak hankan mina omen zuen eta bere hankan zeukana erakutsita ez omen zion kasurik egiten. Bere buruari egiten omen zizkion kurak eta azkenik berandu izan zen arte. Operazio larri batetik pasa beharra izan zuen eta bere buruari kurak egiten jarraitu behar izan omen zuen, hala dio. Operatu zuen medikua Martin Santosi buruz hitz onak besterik ez ditu.

Herreran bizitzera joan zen, bere ahizparekin. Puntozko fabrika batean egin zuen lana, eta han zegoela, hankako zauria sendatua zuelakoan, berriz ere gaizki sentitzen hasi eta zauria ireki omen zitzaion. Hortik oso gaizki jarri omen zen. Baina



**Maria Juana Huicik 100 urte bete zituen eguna.**

berak berriz bere buruari kurak egiten jarraitu omen zuen. Medikua ere harrিতa gelditu omen zen nola aurrera atera zen. "Mala hierba" esaten omen zion ikusten zuenean. Egun batean, "zer esan nahi duzu horrekin?" galdetu omen zion eta hauxe erantzuna: "etzela bela hiltzekoa izango" esan omen zion, eta ehun urte beteko zituela. Orain askotan akordatzan omen da horretaz.

22 eta 26 urte artean jendeari kurak egiten aritu omen zen bere burua laguntzaile bezela eskainita...Donostian ezagutu omen zituen Carmelita deritzen monjak eta hala bera ere monja sartzea erabaki omen zuen. Matias bere anaia soldaduskako baimenarekin omen zegoen eta hark lagundu omen zion Iruñera, eta handik Bergarako komentura joan omen zen. Orain urte gutxi itxi da komentua



Aranoko txistulariak.

eta orain Bartzelonan dago beste monja egoitza batean.

Aurten 100 urte bete dituela eta bisitan izan ditu hiloba batzuk joan den urriaren 25ean eta 26an. Poz izugarriaz hartu omen zituen eta beraiek ere kontentu bueltatu dira. Oso polita ikusi dutela esan digute. Aranon bertan bizi den amonarik zaharrenaren, Maria Almandoz bere lehengusaren eskumuinak ere eraman dizkiote eta poz handiz jaso ditu.

Urte askotako Sor Maria!!

## MARTZENeko-BORDAKO JABIER

Martzeneko Bordako Bitoriana eta Paulinoren bederatzigarren seme eta gazteena da Jabier. Fco. Jabier Narvarte Petricorena izenarekin bataiatua, nahiz orain hiru urte, guztiz euskaratu eta izen ofiziala Patxi Xabier Narbarte Petrikorena duen. Bederatzigarren semea familia ugari honetan, aurretik berriz, lehenengotik hasita, Milagros, Pedro, Felix, Luis, M<sup>a</sup> Juana, Batixta (orain hila), Joxefina eta Eduardo.

Haurretako oroitzapenetan oso gogoan ditu eskolako errekreoan egiten zituen pilota partidak, bere lagunekin. *"Lontxon Bordako Joxe Mari, Seoneko Ixidro, Estartako Joxe Manuel eta jende gehio're ibiltzen ginan, arrunt gustokua nun pelotan aitzia"* dio Jabierrek.

12 urtetan seminariora Iruñera bidali zuten. Han hiruzpalau urte pasa zituen eta bertan apaizetarako ikasketetan, ohi zen bezala, solfeoa ikasi zuen. Aranoko orduko Don Jesus apaizak igandeko mezatan, gaur egun dagoen armonioaren aurretik zegoe-

na jotzen jartzen omen zuen batzuetan. Berak dio oso lotsatia zela, baina pasarte hau dauka oso gogoan. *"eun batian, Aranoko sekretayua, Ibarrola, Aranon jayua miño gerora Aranatze bizitze jun zenak, san tzian: biyar batayua do ta atautxiyak diru asko daka. Jun hai armoniyua jotze ta ikusikouk zenbat diru irabazikouken! Nik hasieran ezetz san niyon, lotsatiya izaki, miño azkenian kaso in niyon ta jo nun ba...sarreran "Aida"jo nun ta irteran enaz akortzen ze pieza miño bukatu nunian, atautxiyak armoniyuak gañian bost duro utzi zizkian. Joee...hau diru pilla! Pentsatu nun ne artian, poz pozik jua nitzan itxe ta attai man niyon. Atta! hau armoniyua jotzeatik eman diate. Ta attak pozik handik soldatatzua partittu zian. Hola hasi nitzan tarteka elizan jotzen"*.

Behin hola, seminarioa bukatu ordu, apaizak eskuan txistu bat eta txistuko metodoa jarri omen zizkion eta hala esan omen zion. *"Jabier, dantza taldia sortu gu Aranon. Zuk solfeua bakizu ta aiba txistu hau, ta aiba metodoa, segi baserrira ta ikasi!"*.

Sekulako gogoz hartu omen zuen ikaragarri gustatzen baitzitzaion txistuaren hotsa eta denbora gutxiren barruan Santiyutan txistua jotzen hasi omen zen bere kabuz ikasita beste herriko txistulariekin. Gozkeneko Jexux, Mailako Bittor, Leandra maistraren semea Xeberiano Zubiri eta berak txistua eta Xauxarko Joxe Martinek atabala. *"Oso ongi jotzen zun Joxe Martiñek atabala"* gogoratzen du. Txistua oso gogoko duela argi dago ez baitugu Jabier bere txisturik gabe ezagutu. Beti alboan

izan duen tresna honen doinurik gustukoena zein zen kontatzen digu: *"ne anaya Pedrok bazun panadeian, radiyo bat, garai hartan gutxi zian miño, oso ona zen gañe, soñu erra zakan ta han ogi saltzen eoten nitzan bittartian, Donostiko radiyotik "la hora de la Provincia" izeneko irratsayuan hasierako doña ikararri gustatzen zitzian"*. Elizaren gainean dagoen *"zona de recreo"* deitzen dion goiko solairuan jotzen omen zuten txistua entsaiatzeko.

Seminariotik atera zenean honela esan omen zion aitak: *"Ez al duk estudiatu nahi geyo!! Biyar hie anayakin iratze lurre seizak ordun!!*. Jabierrek aitortzen du baserriko lana gustukoa bazuen ere, inoiz lanean aritu gabea izaki zaila egin zitzaiola hango martxa hartzea. Anaiak esaten ziotela, *"nik hartukoiat aurrekoa"* laguntzeagatik, baino bere hitzetan baserriko lana, beretzat gogorra zela.

Bere arreba M<sup>a</sup> Juana, garai hartan Donostiako semea zen Juan Manuel Molinarekin ezkondu eta Bartzelonan bizi zen eta koinatuak esan omen zion bere enpresan lanen bat jarriko ziola eta ikasketekin segitu ahalko zuela. Era horretan *"Beste mundu berri baten bila"* 16 urterekin Aranotik arrebaren etxera, Bartzelonara joan zen. Bost hilabetetan primeran ikasi omen zuen katalanez hitz egiten *"behar den bezela"* –dio Jabierrek, noski, hizkuntza eta herriaren arteko loturari erreferentzia eginaz.

## Bartzelonan

Koinatuaren enpresan denetatik egiten omen zuen, *"ofizinan, almagazian, enkar-guk itten..."* eta bitartean ikasten jarraitu zuen. *"Comercio"* ikasketak amaitu eta *"Peritaje mercantil"* ikasketekin ia amaitu arte jarraitu zuen.

Aranorrek eta frontoia berezi ezinak direla ematen du sarri eta nola ez kasu honetan ere, pilota gustukoa izaki, hainbat txapelketatan parte hartu zuen Jabierrek Katalunian hasita. 16 urterekin Katalunian pilotari txapelketan txapelduna izan zen *"Nalda 2."* arekin batera, azken hura, gerora pilotari profesional izan zen. Naldarekin jarraitu zuen bikote ofizial moduan eta 18 bete aurretik, Iruñean *"Primer campeonato juvenil de pelota a mano"*-n parte hartu zuen. Handik bueltan Bartzelonara, pilota uztea erabaki zuen, baina 24 urterekin berriz ekin zion pilotari. Federaziokoek

Segundako Espainako txapelketarako apuntatu omen zuten. Valentzian, Ali-kanten eta Zaragozan jokatu omen zuten baina eskuetatik asko sufritzen omen zuten eta Zaragozan bere azkeneko partida jokatzea erabaki omen zuten. Honela esan omen zion bere Burgoseko bikoteari, Carlos Blancori, azken partidua zuela eta nahitaez irabazi beharra zeukatela. Eta halaxe egin omen zuten; 22-5 irabazi, "Jai-Alai" Zaragozako frontoian.

Hau utzi eta pala luzean entrenatzen hasi zen eta 25 urterekin profesionalean debutatu zuen Bartzelonako Rampletan dagoen "Fronton Colon"-en; hura itxi artean han jokatu zuen, zortzi urte luzez.

Ordurako beste enpresa batean lan egiten zuten Jabierrek eta pilotarien bizitza motza dela pentsatzen zuenez inoiz ez omen zuten lana utzi. Laborategi horretan jubilatuta arte lan egin zuten eta bertan "jefe de contabilidad" eta "jefe de tesoreria" izatera iritsi zen. Jabierrek familia ere Bartzelonan sortu zuen Lizarra ondoan dagoen Legaria herriko Consuelo Gomez de Segurarekin batera. Bi seme izan zituzten: David, 41 urtekoa, eta Eneko, 36 urtekoa.

Jabierrek zerikusi handia izan du Bartzelonan bizi izan den euskal giroarekin. Honela kontatzen digu "Nafarren etxearen" sorrera: "Gerra aurrian Hogar vasco-navarro" deitzen zen ta gerra bukatzian euskalzaliak "laurak bat" izeneko taldea sortu zuten ta regimenan aldekuak berri "casa de los navarros" delakua. Laurak bat laster itxi zuten galazi in zuten ta han geunden euskaldunak "Nafarren etxera" juten giñan trago batzuk hartze, hitzeitite...Euskaldunak ta ingurukuk'e tortzen zian ta gue izaera berdintsua zutenan biltokiya bihurtu zen, bizkaitarrak, gipuzkuarra, burgostarrak ta dena biltzen giñan. Hantxe ibiltzen giñan kantari." Harremanak sendotzeko beharrezkoa zen bilgune hau Jabier bezela Euskal Herritik kanpo zeuden hainbat euskaldunentzat eta pilotari izateari utzi zionean, bertako junta buru belarri sartu zen Jabier. Honela kontatzen du: "vicepresidente izan nitzan urte askotan ta han txistu taldea ta dantza taldea sortu nittun. Lehenbizi mutiko batei eakusten hasi nitzan, ta pixkanaka geo ta jende gehio bildu zitzaizkian. Frontoia're bazakan ta dibertitzeko hantxe aitzen giñan eskuz partiduk jokatzen. Euskerako klasiak maten hasteko idia atera zenian nei jarri

zianen maisua bilatzeko ta koordinatzeko ardura're ta Aresoko Pello Gereño, gizon jator askua proposatu nun lan hortako. Psikologia ikasten ai zen. Txistu taldiak indarra hartu zun ta kasette bat'e grabatu giñun... taldian izena "Lagun taldea" txistulariak zen ta Euskal entziklopedian'e agertzen da argazkiya garai hartakua. Kontzertuk'e antolatzen ginittun, Euskal Herriko jendia kartzan giñun musika jotze. Dantza taldiak'e bai pila erra...Leitzarrak, Arizkunguk, Iruñakuak, Hoberena, Tudelakuk, Ortadar, Ibaiegi Lizarrakuk, Goizutakuk... Bingu giñun ordun ta diru asko uzten zian, benefiziuy gauza hoitan gastatzen ginittun...herri kirolak'e bai, Perurena 22 urte zittula karri giñun ta harrijasotzen ta aizkoran in zianun..."

### **Bartzelonako Euskal Etxearen sorrera**

Jabierrek jendeak esaten omen zuten "Este nos esta euskaldunizando a todos" eta zurrumurruak ere ugari, badakizue garai haietan euskalduna eta E.T.A.koa izatea gauza bera zela uste zuten jendearen ahotik. Baina Jabierren esperientziak aurrera egiten zuten urteak pasa ahala eta horregatik Bartzelonako Euskal Etxearen sorrerako bileretara gonbidatu omen zuten. "Euskal zaleak," deitzen zen elkarte bat, soziedade gastronomiko bat zeon ta han zerbatte gehio izateko idia sortzen ai zen; Centro cultural, Euskal Etxea...ta ne bila torri zian. Juteko hurrengo bilera san ziaten. Politikoki garai oso muittua zen ta iritzi asko zeuden. PNV-kuk etzuela han sartu bihar, bestiak beste era bate...Bilera jun nitzan ta hala ai ziala san niyuen...- miño.. zuek ze nahi zue Euskal etxea o partido politiko bat sortu?. Hoi izan zen bilera hartan ne lehenbiziko esaldiya...euskal etxia in bihar badugu...euskaldun guziyak due kabida hor. Zerbatte gaizki itten dun momentun ordun bialiko gu o amonestaziyua jarrikoyou...miño bin bittartian... denak due kabida!!. Hola hasi zen Euskal Etxea ta Calle Pelayon pisu bat hartu zen... urte batzutan marxa geldittua eon zen miño uan oso fuerte do. Ni ya enaz juten gaztiagun muimendu haundiya do ta hoi ona da..- dio Jabierrek.

Nafar etxetik Euskal etxera salto egin zuten bere txistulari eta dantza taldearekin behin hola, bere materiala, Nafar etxeko Ochoteak manipulatu zuela ikusirik eta

haserre biziz. Baina harro dago gaur egun txistu taldeak eta dantza taldeak duen indarrak. Denok dakigu gainera betidanik Aranoko San Roke jaietan Jabierren partaidetza eta inplikazioa zenbaterainokoa izan den. "Ttikitan kriston festa izaten zen San Roketan"... inguruko herri pila batetik tortzen zen mezeta jendia, ta Aranoren zeuden 3-4 tabernak, denak betiak eoten zian bazkaltzen gelditzen zen jendiakin... uan bezela etzon kotxeik ta... hango pelota partido ta hango bertsolai inprobisatuk tarteko... ambiente oso politta eoten zen". Aranorako Bartzelonatik sentitzen zuten "Txirrinta" edo "Aiarra" hori izan zen Jabier udalera diru laguntza bila joateko erruduna eta horrela San Roke jaia berreskuratzeko ahaleginetan jardun zuten hainbat urtetan. Gaur egun Montebideoko familiaren ezinbesteko laguntza dauka, baina festaren bilakaerak pena ematen diola aitortu digu. "gaur egun pena maten dit festa horrek... galdin du festa girua. Mezeta jendia tortzen da miño geo bakotxa be itxe juten da...Pelota partidua juxtu juxtuan mantentzen da. Bartzelonatik honea txistulariak tortzen dia jotze, ta gañe gutoz errepikatu itten due ta, baita Hernani ta beste herri batzutatik miño... herriko jendiak gutxi itten diu kasoik. Bazkaltzen gelditzen genak gutxi ge, herri bazkaya miño familiko bazkaya geyo dela iruitzen zau ta zazpitan aio ta kitto... bukatu da hango festa!...Goizutako festak diala bakit miño... pena mateit... ez da herriyan bihar bezela errotu festa. Santiyuk bai polittak diala ta popularraguk..." Guzti honekin argi geratzen da Santiyotan eta San Martinetan jendearen inplikazioa eskatzen dugun eran San Roke jaiaren ohitura mantentzeak merezi duela. Azken finean herriko beste festa egun bat dela kontuan hartu beharko genuke. Ez da udaletxeko diru laguntza ta partiduaren antolaketan soilik nahikoa bere ustetan. Herri bezela gure goxotasuna beharrezkoa dutela nabarmen geratu zen berarekin izandako solasaldian.

Amaitzeko Jabierren hitzak gogoan hauxe idaztea besterik ez zait falta. "Jarrri Kataluniak Aranoarrak oso ongi hartu gattuztela ta hain desberdinak izaki, kausa berdiña dakagula...borrokan segi bihar!!".

Bejondeizula Jabier.

• **AranTx** Ansa



## Azelga penka eta barazkin lasaina



### OSAGIAIAK:

- 8 azelga normal
- 2 tipula
- 2 porru
- 2 azenario
- 8 txanpinoi
- Piper berde eta gorri bat
- 4 patata koxkor
- Kutxara bat mantekila
- 200 ml esne
- Olio eta gatza

### PRESTAKETA:

Alde batetik azelgai hosto berdian kendu eta jaso. Penkak 10 cm-ko neurrin moztu ta harik kendu eta ura eta gatzatan egosi 20 bat minutun, irakiten hasita.

Bestaldetik, tipula, porruk, azenariuk eta piperrak juliana fin batian moztu (hau da, tira finatan). Txanpik, berriz, laminatan. Zartai batian olio dexentekin, barazki hoik prejittu, nahiko su bizin. Sutik ate, ta bandeja bate jarri (sukaldeko papera jarri bandejan olio ta txupatzeko) ta gatza bota.

Kazo batian ura jarri gatza ta oliuakin, irakitten hastian patata zurittua eta rodajatan moztua bota eta ordu laurdenian egosi. Honei ura kendu ta esnia ta mantekila bota eta turmisakin batittu, patata puria itteko.

Beste kazo batian, patata erdi bat egosi eta bukaeran azelgan hosto pare bat nahastu, ta minutu batez irakin eta trituratu, ez dadila oso lodia geldittu puria.

Bukatzeko, penkak plantxa bota, bi aldiatetik koloria eman. Geo platera montatzeko, jarri 3-4 bat penka, ganian barazki eta berriz penkak ganetik. Honei patata puria bota eta bukatzeko azelga hostukin indako puria bota kutxara batekin dekoratuz.

## Euskal pastela (gateau basque)



### MASA:

- 400 gr ogirina
- 2 arraultza
- 2 goringo
- 200 gr azukre
- 200 gr gurin
- Limoi railatua
- Ron txorro bat

Bolkan bat egin ogirinakin eta erdin gurina, azukria, limoi railatua, arraultza osua, 2 goringuk eta rona jarri. Hoik pixkanaka erditik bazterrata nahasten hasi, ogirina pixkanaka hartuz. Ongi amasatzian, plastikozko paperian bildu txorizo lodi baten modun eta frigorifikun euki 24 orduz gutxinez.

### MASA:

- 1/2 l esnia
- 4 goringo
- 125 gr azukre
- 50 gr ogirina
- Ron txorro on bat

Esnia berotzen jarri eta bittartian kazula batian, goringuk azukriakin nahasi, geo ogirina ta rona bota ongi nahastu, eta azkeneko esne berua bota eta sutan etengabe nahastuz euki irakitten hasi arte, sutik ate eta epeltzen utzi.

### PASTELA MONTATU:

Masa bi zatitan moztu eta zabaldu arraboila (rodilo) batekin, bi puskak. Zabaldutako puska batekin moldia forratu, betire paretatik kanpo masa pixkat utziz. Kremakin bete eta kanpun utzitako masa berriz barrene sartu. Gainetik zabaldua don beste masa puskin tapatu ta sobrantia, molde ixkinarte moztu. Gainetik labanakin, marra horizontalak ta bertikalak in, ta arraultza batittuakin pintatu eta labian sartu 180°C tan 35-45 minutuz.

## Hutsuneak bete

Hitz hauek aspaldian horrenbeste entzuten ez direlako bildu ditugu hemen. Kontsejun jarritako kaxan bildu ditugu eta haiekin istorio bat egin. Ea asmatzen duzun non sartu behar den bakoitza!

**1. Arraiua**

**2. Biñipin**

**3. Errepetu**

**4. Aixtin**

**5. Arrenkuratzen**

**6. Berantetsittuk**

**7. Makutsik**

**8. Giizatu**

**9. Uhal**

**10. Nabar**

**11. Ikaztei plaza**

**12. Elementuk**

Zabaltoki hartan sartu nitzanian hasi zen dena.

Ez nakin nik leku hura zer zen biño hanka bertan jarziak in hotzikaria sartu zitzan gorputzian! \_\_\_\_\_!

—pentsatu nun ne artian— Erreka zoku hau muspela da horretik! Halako batian, atzian mintzatu zitzian gizon gazte bat. Zapela ttiki bat zun burun, maoizko galtza zabal belztu batzuk, \_\_\_\_\_ batekin gerrin lotuk ta abarkak hankatan. \_\_\_\_\_ zijuana, girua hotza bazon e.

— Poliki ibili hor \_\_\_\_\_! - san zian kopeta zimurtuta.

Ni, ez nitzan oaindik gizon hura nondik ate zen jabetzen. Bueltaxka bat itte ate nitzan, beste ittekoik gabe, ta harek ez zun maten denbo pasa zabilenik! Be jazkera biño, itten ai zena zen lekuz kanpo nengola pentsarazten ziana! Ez ginun garai berekuk maten!

— Ez al dun aittu erne ibiltzeko hor?

Atze bi pauso matiakin, ketan zon monto haundi bat ikusi nun aurrian!

— Ze... zer da hau ordia? - san nin nik begik zabal zabal inta, sekula holokoik horreñen bertatik ikusi gabia nitzala gorde gabe.

— Hau? Ez dian sain oain ez dakiñela non habilenen...

Gizonak ez zun eskutan zabilki mako ttikia soltatzen. Parremurritx bat in zun burua ketan zon montora jituz. Zapela, atzetu, burua azkuretu, ta berriz burun jarri zun be tokin. Berriz neana jitu ta hola san zian:

— Hie attona re txondor itten ibiliya hunen ba? Hauxe dun in izain giniñenen azkeneko txondorra!

— Ne attona...? Azkeneko txondorra...? \_\_\_\_\_ hemendik pasa nazenian ez zon hemen deus! Nondik ate zen gizon hura? Ta txondor bat ketan? Ikusi bihar nun ba urrutiotik!

— Bai, azkeneko txondorra! Jakingo dun ba txondor bat zer den!

— Bai, biño... Azkeneko txondorra hau izan bazen... —netzako san nun, ez nun ta deus enteintzen! Gue attona hil zela 20 urte izain zian, ta azkeneko txondorra noiz in izain zuen ba?

\_\_\_\_\_ hasi nitzan nahi gabe, biño banun, aldi berian, gehio jakittekoko gua! Ukabilak estutu ta hantxe gelditzia pentsatu nun gizon harrek ze kontatuko zian aitzeko.

Txondorra nola prepatzen zen esplikatatu zian, nola ta nondik maten zitzain su, nola kontzen zen aurogi erre gabe... Ikatza itteko be denbua bihar izaten zula san zian ta gutxinez bi launen artian bijilatzen zela. Txondorra ez zela behin e bakarrik uzten, propio hortako erreminta espezialak izaten zittuela, bai prepatzeko, bai kontzeko ta bai geo ikatza atzetzeko. Mando bat seinlatu zian saski \_\_\_\_\_ batzuk ondun lurrian zittula, ta hura be launik hobena balitz bezela zaintzen zula ikusi nun, horrenbeste kilo ikatz handik gotti karraitzeko beste moduik ez zun izain ta!

Bizimodua zenbat kanbiatu den pentsatzen jarri nitzan. Lehen ikatza zenbat gauzatako ibiliko te zuen? Gue aurrekuk, askok, basotik ateko zuen bizimodua!

# Txisteak

ARANO [Araneko kuzen] 2014ko martxoaren 24a

- Behin bi Tifo elkarrekin etia Araneko kuzen eta sara dia beste besteri
- Aha zozte?
- Aha
- Aha nora!
- Zuk sartzeo auzitza Aranoa



- Tifo bat soaten da toy bi soñale daude, bat zen Arano eta besteak orala, aldiptes sari zutako,
- Aha soango raiz?
- Aha no, arden orala!



Ta basua bera ze aberatsa te zen garai batian? Horrenbeste eur txondor bakoitzeko ta gañe gañeko lanatako...

Itxetik aspaldi ate nitzala pentsatu nun ta burutazio horrekin batian sekulako \_\_\_\_\_ hasi zittun bapatian!

— Honozkio \_\_\_\_\_ eongo dia itxian ta abitu biharko dut! — san nun, salto batian gerrin namakin zira burutik betti hartuz. Burua altxa nuneko, ordia, falta zen azkeneko ordu betian ne begin aurrian euki nun guzia! Falta zen arropa iluneko gizon zapelduna, falta zian mandua ta astasaskik, ta falta zen, ketan exarin-exarin erretzen ne aurrian ikusi ta sumatu nun txondor berua!

Euritan ta lanbro artian haren bila ibili nitzan, biño han ez zon hasieran zanpatu nun zabaltoki hura besteik! \_\_\_\_\_ deitzen omen zaiue txondorrek eondako zabaltoki hoiri! Oain badakit hoi re... Euria atertu zun ta euzkia \_\_\_\_\_ zen konturatzeko ta itxe abitzeko garaia bazela iruittu zitzan.

Oaindik herrin txondor itten ibilitako jendia baginula \_\_\_\_\_ nitzan itxeko bidian, ta txondorretako ibiltzen zittuen erremintak gordiak bazittuela herriko baserri batian! Ze aberatsa den gue aurrekuk nola bizittu zian ikastia! Galdetzeko beldurrik ta perezik ez da izan bihar! Kontu hoik berritzeko pronto eoten da ingurun jende asko ta ikastiak etorkizuna josteko erremintak maten dizkiu. Erne zentzu guzik ta ireki burua... Eozin bazterretan eon leike beste ikaztei edo "ikastei" plaza bat!

## Zer ote da?

Hemen duzun argazki hau Jabier Legarretak egin du. Manipulatuta dago, ordea, aldatuta alegia. Zer ote da irudian ikusten dena? Asmatuko al zenuke?



Ez dago erantzun bakarra, jolas bat da azken batean. Irudimenak esango du zer den hor ikusten dena. Ea zuk eta zure ingurukoek gauza beretsua ikusten duzuen, edo oso urruti zabilatzaten!



Aspaldi hontan herri txikiak  
joan dirade beherantza.  
hori dela ta Aranorekin  
banuen nahiko zalantza.  
Orain ordea beste modura  
nik ematen diot antza,  
gazteak oso gogotsu daude  
eta badut esperantza.

Herri txikiak mantendutzia  
ez da erraza izaten,  
hor musu truke nola ez duen  
inork dirurik ematen.  
Ikusirikan herritar denak  
zer borondate daukaten,  
ohituta daude gauza gutxikin  
gauza handiak egiten.

Aterpe batek egingo luke  
zerbitzu harrigarria,  
horretarako jarri beharra  
lehendabiziko harria.  
Leno esan dut, hain eskasa da  
hemen diru iturria,  
baina uste dut egingo dela  
pelotaleku berria.

Gaur leku asko daukagu etxez  
ta errepidez betia,  
alde batetik mesede eta  
beste aldetik kaltia,  
horren ihesi pentsatzen bada  
Aranora juatia,  
aurkituko du leku askotan  
aurkitzen ez den pakia.

Aurrera ere etorriko da  
hemen jendia herrira,  
pake-pakian buelta eder bat  
egingo dute mendira,  
eta Aranok mantenduko du  
orain arteko dizdira,  
Naparroako lur azaletik  
itsasoari begira.

Arano hemen geldituko da  
ni mundutikan joatian,  
begiratuta herritar denak  
daukaten borondatian.  
Esan liteke herri txiki hau  
nola dagoen suertian,  
beraz, Arano seguru dago  
beste bolada batian.

**Manuel Huici**